

Nafar **karria**

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko abuztuaren 4a / VI. urtea / 190. zenbakia

Duela bederatzirte etorri ziren Iturengo Treseneara, lan egiteko eta bizitzeko toki handi eta lasai baten bila. Gustukoa dute, antza, hor kozkortu delako Leopoldo Ferranen pintura, hor gauzatu direlako Agustina Oterok buruan zituen eskulturak. Irundarra Leopoldo, Gaztelakoa

Leopoldo eta Agustina, artista Iturenenen

Agustina, uda honetan hiru erakusketa paratu dituzte Euskal Herrian eta Frantzian, eta egun Parisen bizi dira, beka batek eman dien aukeraz baliatuta. Malerreka herriko funtsezkoa izan da bi artista profesional hauen dako: «Hemen eskuratu dugu heldutasuna», diote.



Leopoldo Ferran eta Agustina Otero, Treseneako ganbaran.

ALBERTO BARANDIARAN

Orain urte batzuk sentitu nuen lehenbiziko aldiz, udako oporretan nengoela, Galiziako Toxatik gertuko baso batean. Sentsazio sakona izan zen hura, barrena mila zatitan puskatzen duen zartako horietako baten modukoa, alegia. Mendi gainean nengoela, itsasoa ikus zitekeen alde batera, berde eta urdin: ikuskari ederra, arratsalde eguzkitsu hura bezalakoa. Toki beretik baina itsasoari bizkarra emanez eta begiak lehorrera zuzenduz aldiz, behin baso zabal eta emankorra izan zeneko eremu idorra agertzen zen, arras erreta, ikatz kolore berekoa. Laster somatu nuen zera hartara jo behar nuela, jakin nahi nuela, haren baitan egonda, zer ote zen baso erre batetik ibiltzea. Enbor kixkortu haieetatik barnerratu ahala, eremu hila zela naba-

ritu nuen. Bizi arrastorik ez zen inondik: ez txoririk, ez kakalardorik, ezta ostoa edo belar izpirik ere. Baso azala bestalde, belztuta zegoen oso, soil soilik, han-hemenka barreiatuak zeuden puntu zurixka batzuek kontrastea egiten zioten inguru beltzari: barraskilo oskol zurizatuak ziren, beren hiletteen hondarrak, jakina. Erre usaina zen nagusi gune hartan. Dena isilaren meneko. Pinnuetako lurrin kilikagarriak suntsituta zeuden, belarraren usaingozoa ere bai. Horrela izan zen bada, lehen begi kolpearen inbentarioa:ugarrek dena gar-

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



bitu dute, gorpu bat da basoa, iraganeko berdearen oroimina barne. Inbentarioa ez nuen tajuz egin ordea. Bazterrak arretaz arakaturik, bere hartan zirauren oraindik kimuren batek edo beste. Lurra zekenduta zegoen bai, baina dena ez zegoen errauts bihurtuta. Lehenbiziko inpresioagatik nabaritu ezinezko landaretxo batzuk han zeuden, bizirik. Gutxi ziren baina: belar pitin bat hor, iratxe sorta bat han, bela bat ez ote zen hegazti hura?... Eta pena eman zidan basoa hola ikusteak, eta baita orain pena ere penatuko ninduen erabat, Sara-

jevoko kaleetatik pasatzeak, noizbait, egungo sarraskiaren aurretik, handik lasai ibili izan banintz. Bosnia-Herzegovinako hiriburuak badu, niretzat behintzat, nolabaiteko irudirik, harako egun hartako basoan ikusi eta sentitu nuenarekin. Basoa, agian, burutik sano ez zegoen piromano batek propio su eman ziezaikeen. Sarajevoko etxe, eraikuntza publiko eta, mingarriena, bertoko bizilagunak gupidagabe ari dira suntsitzen, etnia ezberdinen elkarbizitza, zibilizazioa, ultranazionalismo militarista ideologiaren izenean, errauts bihurtzeko asmoz. Eta zinez lortzen ari direla. Halere, bertakoek ez dute oraindino etsi: bi emakume solasean dihardute hor, gizaseme bat egunkariak banatzen ari da han, hura ez ote da antzerki obra baten emanaldia?...

Udamineko atsekabe telurikoak

GUERE AUKERAK

LEHIAKETAK



Atarrabiako Udalak 1995eko festetako egitaraurako XI. kartel lehiaketa antolatu du. Lehiaketan Nafarroan bizi edo jaio diren artistek har dezakete parte nahi adina obra aurkeztuz, baina lanek originalak izan behar dute. Lanak aurkezteko epea hilaren 30ean amaituko da eta Atarrabiako Kultur Etxean aurkeztu beharko dira, Kale Nagusiko 67. zenbakian.

Antsoingo 1995eko festetako kartel lehiaketa antolatu dute. Sariketa zabalik dago parte hartu nahi duen ororentzat eta bi kategoriatan banatu dute: helduak eta haurrak. Artistek edozein teknika erabili eta nahi beste lan aurkez ditzakete, baina obrek originalak eta koloretan eginak izan behar dute. Lanak Antsoingo Udaleko bulegoetara eraman behar dira eta aurkezteko epea abuztuaren 18an bukatuko da.

ERAKUSKETA



Boreganen eskulturak ikusgai daude Korellako Kultur Etxean abuztuaren 12ra arte. Astelehenerik ostiralera bitarte, arratsaldeko seietaatik bederatzia arte.

Tafallako gaztetxean Chiapasi buruzko erakusketa. Argazkiak eta EZLNren komunikatuak, Tafallako Gazte Asanbladak antolatuta.

ANTZERKIA



Herriz herri 95 ekitaldien barruan, Sambhu Antzerkiak 'Gure herriko kondairak' lana hiru herri-antzerkitan aurkeztuko du, asteburu honetan. Ostiralean, abuztuaren 4an, Adiotzeko frontoian izanen da arratsaldeko zortzi t'erdietan. Larunbatean, abuztuak 5, Biurrungo frontoian ariko dira, ordu berean. Azkenik, igandean, Galar-Espartzan antzeztuko dute obra, zortzi t'erdietan herriko frontoian.

ZINEMA



Araitz-Beteluko udal euskara zerbitzuak antolatutako 'zinema udan' zikloaren barruan, heldu den ostegunean, abuztuaren 10ean, 'Wanda izeneko arraina' umorezko filma izanen da ikusgai Azkaraten. Era berean, Herriz herri 95ek antolatua, 'Maverick' filma eskainiko dute hiru herri-tako enparantzetan, gaueko hamarretan. Ostiralean, abuztuaren 4an, Erron; larunbatean Sansolen eta igandean Meano herrian.

BERTSO JAIA



Labaiengo festetan, bertso bazkaria izanen da heldu den asteartean, hilak 8. Bertan, Peñagarikano eta Lizaso bertsolariak ariko dira kantari.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Etsipena


Diotenez, landa jendea sakrifikatuago da, badi aurikusi ezin daitekeenarekin bizitzeak ematen duen etsipen barneratu hori. Eszeptikoagoak badirela ere esan daiteke, egunerokoan sinesten dute etorkizunean baino areago, etorkizunik ez baitago zeruaren patuaren menpean baldin bazaude. Astearteko kazkabarrak Nafarroako erdialdeko zelaia arraso utzi zituen hondatuta. Tomateak, azaloreak, piperrak eta arto uztak kaltetuta. Erreakzioa: «aurrera egin beharko, urtebete galduta».

Etsipen honek erlijioarekin zerikusirik duela pentsatzea ez da zentzugabea. Landa alderdiak izan dira historikoki erlijioarekin lotura handienak izan dituztenak, aldeketa ororen beldur eta mesfidati. Landa alderdietan beti nagusi izan da arazoaren konponbidea ez dela mundu honetako dioen iritzia, zerutik datorrela zuzen-zuzen, eta horretan ez dagoela ez giza-kiaren partehartze eraginkorrik, ez plangintzarik, ez ezer. «Behintzat ez da hildakorik izan» esaten zuten Martzilla, Azkoien eta Kaparroso al-

dean, jendeak hondatutako zelaien aurrean negar egiten zuen bitartean.

Negar isilak izaten ohi dira, baina, landa alderdiko jendearenak. Ez dira ez oihu ez keinu arrandiosoak ikusten, ez da lausengu edo mardikaziorako tokirik. Zerura begiraten da, ukabilak estututa, eta heldu den urteko uztari begira hasten da lanean.

Martzillan, Azkoien eta Kaparroson ari dira dagoeneko pentsatzen datorrena hobe izango dela. Txarragoa ezin da izan.



ASTEKO PERTSONAIK



Paquito Garcia
Osasunako entrenatzailea

Osasuna futbol taldeak denboraldi berria hasi du eta lehenengo mailara igotzea helburu nagusia izanik entrenatzaile berria ere fitxatu du, Francisco Garcia Paquito izenaz ezagutzen dena hain zuzen ere. Joan den astelehenean taldeak aurkezpenean egin zuen Sada futbol zelaian 4.000 zaleturen aurrean eta Paquitok animo hitzak izan zituen bai jokalarientzat, bai eta Osasunako zaletu guztientzat ere. «Taldea eta zaletuak ongi konpontzeko itxaropena dut eta aurkarientzat gure taldea irabazterraza ez izatea» adierazi zuen futbol zelaian egin zuten denboraldiko estraineko entrenamenduan. Francisco Garcia berez Oviedokoa —Asturias— da eta bi urteko kontratua du Osasunarekin.



Javier Taberna
Merkataritza Ganbarako lehendakaria

Javier Tabernak Nafarroako balantze ekonomikoa aurkeztu zuen astearte honetan Iruñean. Berak emandako datuen arabera, langabezia nabarmen gutxitu da herrialdean aurtengo bigarren hiruhilekoan, epe horretan 8.000 lanpostu sortu baitira eta 4.500 pertsona gutxiago daude lanik gabe. Tabernaren ustez, honek azken atzeraldi ekonomikoan galdutako lanpostuak berreskuratu egin direla frogatzen du. Javier Tabernaren aburuz, datu hauek Nafarroako ekonomia zuzpertz egin dela esan nahi dute, era berean jardura ekonomikoak eta bereziki industri sektorekoak gora egin baitu eta eskaria neurri berean hazi egin delako. Hala ere, kezka azaldu zuen Nafarroako industrian ageri den «gehiegizko kontzentrazioagatik».

TOPAKETAK



Zeramikari buruzko topaketak eginen dira Zangozan abuztuaren 7tik 13ra bitarte. Topagunea herriko Arkuen Enparantza Orokorra izanen da, XVI. mendean Biana Printzearen Armen Ataria izandakoan hain zuzen ere, garai batean hainbat artisaren tailerrak kokatu baitziren. Topaketetan, buztina erabiliz sormena eta hainbat teknika garatu eta zeramikan erabiltzen diren tresnak aztertuko dira. Topaketen osagarri diren aktibitateak ere egiteko aukera dute partehartzaileek. Zona horretan zeramika, beira eta burdina lantzen dituzten artisau tailerrak ikustera joanen dira. Era berean, Nafarroako zeramikari buruzko mahaingurua ere izanen da, eta egun herrialdean egiten diren zeramika lanen erakusketa zabalik izango da. Partaide kopurua gehienez ere 25 lagunekoa izango da, eta matrikula 10.000 pezetakoa —400 libera—. Informazio gehiago nahi duenak 87 02 51 telefonora dei dezake.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenerik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Lizarra

Malerreka

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Presoen umorea, ezezagun hori (eta V)

Intsumituok, jakina denez, elkartasunez beteriko gizakiak gara. Horren ondorioz, ekonomatara —kartzelako sasi ekonomatara— guretzako zerbait eskatzera joaten garen bakoitzean, gure kideei ea zer nahi duten galdetzen diegu. Beti izaten da Gorririko jaietan balego bezala zerbait eskatzeko prest dagoen aprobetxategiren bat. Horretaz gain, inoiz ez da falta izaten 'Eskatzea libre' izeneko adarjotzea egiten duena, hau da, ekonomatara eskuratzetik ez dagoen zerbait eskatzen dizuna.

Bi taldetan sailka daitezke txantxa hau egiten duten kideak. Batetik, badira gure artean adarjotzaile pragmatiko samarrak. Horiek horrelako eskaerak egiten dituzte: «Eskatzea libre! Irlandar kafea», «Eskatzea libre! Txuletoia piperrekin eta konplettoa: kafea, kopa eta purua», «Eskatzea libre! Rona limoiarekin»... Bestetik, badira, halaber, erromantikoagoak, metafisikoagoak. Horiek horrelako graziak botatzen dituzte: «Eskatzea libre! Amnistia pakete bat», «Eskatzea libre! Salba itzazu baleak», «Eskatzea



libre! Tanganikako arma trafikoa desagertaraztea»...

Gauzak horrela, kartzelan izan zenetik zure tabernako bezero amorratu bilakatu den intsumitu mozkiari ea zer nahi duen galdetzen diozularik, berak amnistia paketea edo antzeko txorakeriarren bat nahi duela erantzuten badizu, ez zaitez nerbiostu, ez ezazu pentsa paretan zintzilaturik dagoen kartelak aipatzen duen admisio eskubidea memelo hori kale gorrian uzteko erabiliko duzula, umorea besterik ez baita izanen, presoen umore ezezaguna, 'Galtza', 'Elefantea', 'Azukre koxkorra', 'Atea' eta 'Eskatzea libre' txantxen umore berbera. Zerbitzaria ez bazara ere, intsumitu preso ohi baten senitarteko edo laguna baldin bazara, serie honen amaieran gogora ezazu haren portaera jasangaitza presoen umore ezezagunean oinarriturik dagoela, eta, arren, otoi eta faborez, ez ezazu —uda honetan jada bi kasutan gertatu den bezala— oporretan joaten zarelarik errepidean abandonatu.

Hilobi Santuan gazteak lanean

LIZARRA

Uda hasten denean, Nafarroako herri askok lan egin eta herrialde berriak ezagutzera datozen gazteen bisita izaten dute. Elizak konpondu, bideak berregin, monumentuak eraiki, etxeak altxatu... lana ez da falta izaten animua guztia motxilan sartuta datozen hauendako, eta hilabete-edo emanda, beren herrialdera itzultzen dira, udan ere zerbait egin eta gehiago ikasi duenaren irribarrearekin. Aurten, besteak beste, Lizarrak jaso ditu gazte hauetako batzuk.

Hain zuzen, uztailean eta abuztuan Herrietako 25 gazte eginiko lanari esker, Hilobi Santuko Abadea berriztatuko da, eta lurraren azpian interes arkeologikoko piezaren bat ote dagoen jakin ahal izango da. Espainia, Frantzia, Italia, Alemania, Holanda eta Txekiar Errepublikako gazteek duela zortzi urte hasitako lanaren jarraipena ziurtatuko dute horrela, eta, bide batez, beste herrialdeetako ikasleekin harremana egiteko aukera izango dute.

Lizarrako egonaldi hauetarako aurrekontua Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak ordaintzen du, eta Lizarrako Udalak gazte haien esku jarri ditu Eskoletako ondoko etxebizitzak. Taldearen koordinazio lana Jose Antonio Sanz Mosquera eta Pilar Sanchezen esku dago, eta lana goizeko 9etan hasten da egunero, eta eguerdiko ordu bata aldera amaitzen. Arratsaldean Liza-



Lan arkeologikoa ere egingo dute egonaldiko gazteek. ANDER GILLENIA

rraldea eta Nafarroa osoko geografia eta historia ezagutzeko ekitaldiak antolatzen dira, eta horren arduraduna Maite Izkueta da.

Horren barruan Urederrako iturburu, Basurako kobazuloa, Lokizko eta Urbasako mendizerrak eta Irantzuko monasterioa bisitatu dituzte gazteek. Funtsan, egonaldi hauen helburua da beste kultur eta tradizio batzuk dituzten gazteek jende berria ezagutu eta beraiekin esperientziak trukatzeko. Absidea zaharberri eta elizaren azpikoa aztertzeaz gain, belarra erein eta bankoak pintatuko dira.

Uztailaren 16an hasi ziren lanak, eta hau da Hilobi Santuko eliza honetara datorren bigarren taldea. Lehen taldean izan ziren

18 urtetik beheko gazteak, eta uztailaren 1etik 15ra bitarte izan ziren Egako hirian. Atzo amaitu zituzten lanak bigarren taldekoek, eta hurrengo taldea abuztuaren 9an, hau da, heldu den asteazkenean etorriko da. Hor izango dira Europatik etorritako gazte gehienak.

Ur horniketarako lanak hasiko dira


IRUNEA

Ituren, Elgorriaga, Doneztebe eta Sunbillako ur horniketarako lanetako proiektuaren lehen fasea Azpiegitura Lokalerako Hiru Urteko Egitasmoan sartu du Herri Administrazio Sailak. Aurrekontua 114,9 milioi pezetakoa da eta aipatu egitasmoak 103,4 milioi ordainduko ditu.

Proiektuan zehazten denez, Aurtitz, Lasaga, Ituren eta Elgorriagako kondar-urak biltzeko lanak egingo dira, eta Aurtitz, Lasaga, Ituren, Elgorriaga, Doneztebe eta Sunbillako ur horniketarako lehen fasea. Halaber, ur horniketara hauetarako Aurtizko erreka ura hartu eta bideratu egingo da, eta ura eraman ahal izango da Donezteben dagoen eta kondar-urak biltzen duen puntutik ondoren eraikiko den urtegitara. Halaber, Aurtitz, Lasaga, Elgorriaga eta Doneztebeko urtegitara egin beharreko desbideraketak eta urtegi nagusiaren bidea ere ordainduko da, baita ur tratamendurako plantaren lehen fasea ere.

Garruze

LUTXI FOURCADE



Abere feria jendetsua

Ohiturari jarraikiz, Garruzeko herriko plaza behi edo zaldi hazleen udako hitzordua genuen joan diren astelehen eta asteartean. Zaldien egunak ez badu arrakasta haundirik izan astelehenean, 'Britxitenia' egunak, aldiz, jende multzo polita bildu zuen biharamunean. Alabaina, tratuak nahiko apal burutu dira bi abere motentzat eta aurtengoak baieztatu du ferriaren profesionaltasunaren tendentzia.

GOIZUETAN ABUZTUAK 13

goizuetan gunkaria

7 etan

Anje duhalde

Tapia eta Leturia Band

Exkixu

Metan

Su Ta Gar

Def Con Dos

SARRERAK:

AURREZ: Duhalde, Tapia eta Leturia, Exkixu: 1000pzta 45 i.
 AURREZ BONO: Duhalde, Tapia eta Leturia, Exkixu, Su Ta Gar, Def Con Dos: 1300pzta 60 i.
 EGUN BEREAN:.....1500pzta 70 i.

Duela bederatzirte heldu ziren Iturenena, estudio handi eta lasai baten bila, eta gustura egon dira, antza, ez baitira mugitu. Tresenea etxean duten artelan pila, lana gogoz egin duten seinale da, Malerrekan burmuina eta eskua azkar joan diren lekuko. Leopoldo Ferranek inguruko basoetatik hartu du adibidea bere margoetan usu azaltzen diren abarrak eta hosto eroriak irudikatzen, eta Agustina Oteroren eskulturan eragina izango zuen inguruko egurrak, hariak. Parisen daude egun, han urtebete emateko jaso duten bekari esker, eta Bilbon, Lizarran eta Frantziako hegoaldean paratu dituzte egunotan erakusketak. Hainbeste urtetako lan ixilaren ondotik, une gorenean daude, mundu guztiak bilatzen duen egia eta emozio horren bila haieker, «hori gabe ez baitago arterik». Artista profesionalak dira, askok amestu baina gutxi lortzen dutena.

ALBERTO BARANDIARAN / ITUREN

Fakultatetik kanpo jaino eta hazi dira Leopoldo eta Agustina. Hori, hasteko, marka bat da, ikasgeletan baino artearen munduan egin direlako artista. Iturenen garatu dute ondoren kanpoan ikasitako, eta hori bigarren zizelkada da: mundu hau kanpotik, lasaitasunetik ikusteko parada, parada aprobetxatua. Hori dela eta, ohiko erakustokitik kanpo ibili dira biak duela gutxi arte, tipi-tapa egiten, isilean. Orain hasiak dira fruituak jasotzen. Rekalde Bilboko erakustokiaren areto berriaren interbentzio bat —gune konkretu bat dekoratzeko egitasmoa— egin dute eta gauza bera enkargatu diete Lizarrako Gustavo Maeztu Museoa. Abuztuaren zehar arte erotikoari buruz Montpellier ondo (Okzitania) Set herrian mundu osoko 112 artistarekin paratu dituzte arte-lanak. Hemengo bakkarak dira.

Azken hamar urteotako ibilbidea batera egin dute biek, Florentzian (Italia) 1984an elkar ezagutu zutenetik. Biak bide ezberdinetatik heldu ziren artearen mundura. Ferran, bere etxean betidanik usainduriko giroari esker. Otero, txikitik pizturiko zaletasuna zela eta. Margolariak, Irunge etxeko ama eta aitaren pinturak eraginda, hango giroak prestatuta; eskultoreak, Bartzelonako eskolan buztina ukituta.

Harreman teoriko horri praktika erantsi zioten Florentzian, biek lortu zuten bekari esker. Han aritu ziren bi urtez tailer batean, lanean, eta horrek praktikoki oso garrantzitsua izan zela azpimarratu dute biek. 1986ko abuztuaren Italiatik etorri ziren, Iturenen topatu zuten nahi zutena: etxe handia, lasaia, argitsua... lan egiteko paradisua: Tresenea. Azken bederatzirteak eman dituzte hor, lanean etengabe. Aurtengo otsailean Parisera joan ziren urtebete bekari esker, eta uztailean honetan Iturenena itzuli dira berriro, erakusketak prestatzeko.

EGUNKARIA.— Badakizue pribilegiatuak zaretela arteaz bizi ahal izateagatik?

LEOPOLDO FERRAN.— Jakin badakigu pribilegioa dugula egin nahi duguna egin ahal izateagatik, baina badakigu ere lan handiaren fruitua izan dela pribilegio hau. Zorte handia izan dugu, duarik ez, baina etxe hau mantentzeko, lanari eusteko energia handia inbertitu ondoren asko saiatu ondoren... Periferiako lan handia egin dugu pribilegio horri eusteko.

EGUNKARIA.— Batzuetan ahal-egin horrek eraman zaitzake nahiaren kontra zerbaitegitera, bizirik irauteko gauzak egitera?

FERRAN.— Ez, ez garelako gure artea saldu behar izateraino itota izan, ez dugulako behar hori hain gertu ikusi. Gainera, egin behar izan bagenu ere ez geniokeen aparteko garrantzirik emango, ez



Agustina eta Leopoldo, Iturenge etxean.

ALBERTO BARANDIARAN

«Emozioarekin konprometzua izan behar du arteak»


duelako, zer nahi duzun eta nora zoazen garbi baldin baduzu. Hala ere, ez da gure kasua izan, ez duzulako nahi izan eta ez dugulako beharra ere sentitu.

1992n, «dirua eta denbora apur bat» eduki zuten une bakanetan, bidaia txartela merkea eskuratu eta Afrikara joan ziren sei hilabetez, Senegalgo hegoaldera eta Ganbiara. Denbora horretan, lurrelde batekiko erakarpena zena inoiz ez ahanzteko esperientzia bilakatu zen, egun oraindik present dagoena, bai beren laneetan nola beren solasean.

EGUNKARIA.— Afrikara joateko abentura nola sortu zen?

FERRAN.— Bion izugarri gustatzen zitzaigun lurrelde hori eta garai aproposa heldu zenean joan ginen. Lurrelde izugarria, harritzekoa, pozoitsua, adiktiboia da... liluratzekoa, baina ez nekike hitzez azaltzen zer izan zen esperientzia guretako. Hori bai, eragin izugarria izan zuen.

AGUSTINA OTERO.— Aldatu egin zitzaigun bizitza ikusteko modua, baita artistikoki ere. Nik adibidez, sumatu dut aldaketa bat neure lanean, kolorearen erabi-



Bilboko Rekalde-2 aretoko erakusketaren ikuspegi bat.

MARISOL RAMIREZ

leran hain zuzen, Afrikak muga bat markatu zuelako. Hara joan baino lehen ez nuen kolorea erabiltzen, eta han nengoela hasi nintzen eskulturretan sartzen. Denborarekin etorriko dira aldaketak gehiago.

EGUNKARIA.— Aipatzen duzun esperientzia pertsonal hori bi hitzetan azal daiteke?

OTERO.— Nik uste dut oso hurbil dugula oraindik behar bezala azaldu ahal izateko, baina badu harreman handia gizakiarekin, bizitza eta heriotzarekin. Hau da, hemen urteak eman ditzakegu gauzak ikasteko eta ikusteko, baina hango bizipenak dena laburtu egin du, sinpletu egin du oro. Orain bizitza —eta baita heriotza ere— zer den beste modu batez ikusten dugu. Zerbaite ulertu dugu, nahiz eta zer den ez dakigun.

FERRAN.— Afrikar gizakia zer den garbi ikusten da, zerbaite konpaktoa da, eta harrapatzen zaitu. Hara joaten denak bi aukera ditu: arbuatu egiten du dena, edo bestela erabat harrapatzen du, oso pozoitsua delako. Adibidez, 'The Shaltherne Sky' Paul Bowlesen nobelari azaltzen den heriotza oso tipikoa da Afrikan. Han hiltzeko trabarik ez zenuke jarriko ia. Neure lagun batek kontatu zidan Afrikan zehar bidaia bat egin zenean gertatu zitzaizkio sukarrak jota egotea, eta sabanaren erdian, zuhaitz baten azpian zegoela, ez ziola axola bertan hiltzea. Oso normala da han sentimendu hori, bizitza eta heriotza lotuta daudelako.

EGUNKARIA.— Esperientzia lagungarri izan zaizue hain gertatzen ari dena nolabait ulertzeko?

SOLUZIODEKAK.— Esperientzia lagungarri izan zaizue hain gertatzen ari dena nolabait ulertzeko?

SOLUZIODEKAK.— Esperientzia lagungarri izan zaizue hain gertatzen ari dena nolabait ulertzeko?

SOLUZIODEKAK.— Esperientzia lagungarri izan zaizue hain gertatzen ari dena nolabait ulertzeko?

SOLUZIODEKAK.— Esperientzia lagungarri izan zaizue hain gertatzen ari dena nolabait ulertzeko?

SOLUZIODEKAK.— Esperientzia lagungarri izan zaizue hain gertatzen ari dena nolabait ulertzeko?

rean ote zaudeten esateko?

FERRAN.— Gutxi gora-behera azkenean ezagutzen duzu zure zikloa, badakizu noiz zauden une onean eta noiz txarrean, noiz ari zaren gauza onak egiten eta noiz zauden ataka batean. Erraza da jarrera zein den jakitea, baina zaila asmatzea norantz doan zure obra. Orain uste dut biok gaudela lan egiteko gogoz, oso une aktiboan. Makinak abiadura hartu du, burmuina modu berezi batez ari da, eta gauzak aurrera doaz azkar.

EGUNKARIA.— Elkarrekin bizi, elkarrekin lan egin, elkarrekin sortu eta bidaiatu... Eraginik badu baten lanak bestearengan?

FERRAN.— Jankoei esker uste dut baten lanak ez duela bestearengan intzidentzia handirik. Arisku bat da, arisku handia elkarrekin lan egitea, batek lurrelde batezake bestea, baina...

EGUNKARIA.— Baina sumatu duzue indar hori, elkarrengana bultzatzen zaituztena?

OTERO.— Bi disiplina desberdinak —eskultura eta pintura— izateak eta bi gai erabat ezberdinak edukitzeak lagundu egiten du indar hori aurrera egiten. Baina bilatzen duguna, norabidea, gauza bera da.

EGUNKARIA.— Eta zer da bilatzen duzuen?

FERRAN.— Hori galdera-marro da. Izan dira artea asko intelektualizatu duten garaiak, eta batzuk asko saiatu dira artea kanpotik arrazionalizatzeko, zer bilatzen den, zertarako balio duen arteak eta abarreko galderei erantzunik bilatzen. Baina artea, gizakiaren lehen garaietatik hona, etenik gabe egon da lotuta gizakiarekin, eta hori ez da txorakeria bat. Zer bilatzen duzun

han ere, Montmartreko bihotzean urtebete eskaini dieten estudioan, egun duten energia hori gauzatzen saiatzeko.

EGUNKARIA.— Eta Parisek zer eragina izango du?

FERRAN.— Parisen aurrean dugun jarrera oso lotuta dago Iturenen eman ditugun urteekin. Hemen dagoen lasaitasunak lagundu digu han dagoen aktibitate zitu biziko hura lasai hartzeko. Han dagoen jendearekin alderatuta beste jarrera bat dugu.

EGUNKARIA.— Gauza zarete zeuen artearen etapa guztiak ongi zehazteko, une onean edo txarrean?

FERRAN.— Gainera, artista hemen izan gara. Hona etorri ginenean ikasleak ginen, eta hemen garatu dugu gure artea. Horrek eragina izan du, hain segur, nahiz eta nabaria ez izan. Heldu egin gara pertsona gisa, eta ondorioz, gure arteak ere heldutasuna hartu du.

Parisera joango dira asteberu honetan bueltan, Bilbon, Lizarran eta Seten (Frantzia) paratu dituzten erakusketen ondotik,

galdetzea eta bilatzea zaila da, baina norberak badaki zerbaitek bila ari dela. Esan daiteke arteak, biontzat, egiarekin konprometzen bat daukala.

OTERO.— Egia artearen barruan bilatzen dugu, gure baitan bilatzen dugulako: hori da erantzuna.

EGUNKARIA.— Ez zarete, beraz, artea definitzearen aldekoak.

Artista Iturenen izan gara. Hona etorri ginenean ikasleak ginen, eta hemen garatu dugu gure artea, hartu dugu heldutasuna.

Orain biok oso une emankorrean gaude, lan egiteko gogoz. Makinak abiadura hartu du, burmuina era berezian ari da lanean, eta gauzak aurrera doaz azkar.

FERRAN.— ‘Zertarako artea?’ ‘Zeren bila daude artistak?’ beti hor dauden galderak dira, baina gauza bera gertatzen zaizu bizirik egiteko: ‘zertarako balio du bizitzak?’ Ba, erantzun onena ‘bizitzak’ da. Ez da erantzuna, baina balio du. Hau da, hobe da gauzak egitea zertarako egiten

diren pentsatzea baino.

OTERO.— Bide berean galderak eta erantzunak daude. Galdera batek erantzun bat ematen ditu, baina erantzun horrek beste galdera bat egitera eramaten zaitu. Honetan lan egitea deliberatzen duzun lehen unetik hasi eta bukatara arte luzatzen den ziklo bat da.

FERRAN.— Munduan, bizitzan, badira kontzeptu batzuk abstraktoki aterata eta gero berriro kontu daitezkeenak, nor bere erara. Horregatik, artean bada transcendentea azaltzeko bilaketa bat. Adibidez, Louvreko Museoa bisitatuz gero —gaur guztietako arte lanak dituen—, obra garrantzitsu guztietan —hau da, emozio transmiti dezaketenen— bada zerbaite, eternitatearen, transcendentia horren ukituren bat. Artista horrek bere garaian jakin izan du kontzeptu ia metafisiko horiek eramanen, gauzatzen obra horretara. Beraz, arteak egiarekin eta emozioarekin konprometzua izan behar du, bestela...

EGUNKARIA.— Askotan esan ohi da gaur egungo artea inoiz baino aparteago dagoela jendearengandik. Uste duzue oraindik zerbaite transmititzeko gaitasunik duela?

FERRAN.— Oso une arraroa eta aztertzeko zaila da gaur egungo artearena. Baina bilaketak aurrera jarraitu behar du, dudarik ez.

OTERO.— Bada jendea artearen amaieraz hitz egiten duena, baina hori ez daiteke. Gizakia bizi den bitartean, artea izango da. Munduan arte plastikoaren bidez zerbaite esateko beharra duen pertsona bat den bitartean, izango da artea.



Duela bost urte Afrikar emandako garaia eragin handia izan du bi artistongan.

ALBERTO BARANDIARAN

Kritikontzi



Euskararen kalitatea ETB1ean

XANTI BEGIRISTAIN

Uztailaren bukaera honetan (30ean) eta gogoan edukita Frantziako Tourra orain dela oso aste gutxi bukatu zela aprobetxatu nahi dut ETB1i kritika eraikigarria egiteko.

Gaur egun oso gauza arrunta izaten da telebista eta irratietako hizlariak komentaria adituren bat ondoan izatea, behar adina iruzkin egiteko. Gauzak horrela ba, azken urteotan, Marino Lejarretak horretan dihardu kirol profesionala praktikatzeari utzi zionez geroztik.

Aurrera jarraitu baino lehen nabardura batzuk egin nahi ditut, alegia: Marino Lejarretari begirune handia diodala txirindulari profesional ohia eta pertsona apala bezala, ez dudala kritikatzeko ETB1eko euskara kalitatea alor guztietan baizik eta aurreraxeago zehaztuko dudana puntuan, eta era berean geroxeago adieraziko ditudan kritikak ez dizkiodala leporatzen Marino Lejarretari lagunari baizik eta ETB1eko programa horren euskara arduradunari, edo bestela, azken finean, telebista horren zuzendari nagusia den Iñaki Zarraraori.

Baina noan harira zuzen-zuzenean eta esan dezadan kritikatu nahi dudana honako hauxe dela: Begira Iñaki Zarrara jauna, Tourrak iraun duen bitartean, zerorrek zuzentzen duzun telebistatik honelako hitzak entzun ahal izan ditugu barra-barra nazkatu arte M. Lejarretaren ahotik: Kontrarrelaja, atakea, atakatu, bajatu, platoa, flojoa, puestoa, diferentzia, failatu, eskapada, eskapatu, kontrarioa, aguantatu, de momento, karrera, karrerista, korritu, korredore, e.a.

Berriz esango dut, errua ez diot Lejarretari botatzen beste bateren bati baino; eta azpimarratu nahi dut zorioneko hitz horiek ehundaka aldiz entzun direla.

Kritika hauek egiteko honetan hartzen dut oinarri:

Gutxienez bitan bereizi behar da euskararen tratamendua: 1.—euskara jasoa eta 2.—bestelakoa edota gainerakoa. Lehenengoa euskara batua da, eta Euskaltzaindiaren arabera pentsatuta dago erabiltzeko irakaskuntzan (OHO, BBB, LH, Unibertsitateetan...); prentsan, komunikabideetan (telebista, irratia), liburugintzan, aldizkari ofizialetan, le-

gebiltzarretan, udaletan, aldundietan, eta abarretan; beraz, ETB1ean ere bai.

Gorago aipatutako hitzak, uste dut egokiak direla erabiltzeko etxean, kalean, ostutaberna mailan, eta abarrean, baina ez behin eta berriro telebista publiko batean; inpresio kaxkar eta txiroa ematen dute. Ez dut uste euskarari mesede handirik egin diezaioketenik; ez dezagun ahantz komentariak bezala jokatu behar lukeela, bestela gogora dezagun pixka batez nola aritzen diren erdaraz beste telebista batzuetan esaterako Pello Ruiz Cabestany, Julian Retegi, Fernando Arretxe, e.a. Edota ETB1ean, lehen, Jokin Errasti, adibide bat jar tzearren; denak saiatzen dira beren hizkera maila altxatzen.

Bukatzeko: Iñaki Zarrara jauna, ez hartu gai hau zabarke-riaz, bestela, zer zentzu izan lezakete behin eta berriz ateratzen ari diren kirol hiztegi euskaldunek? Eta Marino Lejarreta, barka nazazu zurekin horren zuzenean sartzeagatik baina ez ahaztu hizkuntzan kirolean bezalaxe beti joan behar dela etapak gainditzen.

Ea egia den.

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Euskal Bibliografia bildumen historia apurra (II)

Genaro de Sorraingandik Jon Bilbaorenganaino



Genaro de Sorrainek *Catálogo de obras euskaras: Catálogo general cronológico de las obras impresas referentes a las provincias de Alava, Guipúzcoa, Vizcaya, Navarra, a sus hijos y a su lengua* izenekoa izkiriatu zuen, Bartzelonako Luis Tassoren moldiztegiaren agertu izan zena 1891. urtean. Allenderena baino bederatzirialde gehiago izanda, 1.514 sarrera besterik ez ditu. Bestaldetik, txoko honetan jada aipatua izan den Tolosako semea Ixaka Lopez Mendizabal bertako alkatea izan zenaren *Euzko idazti izendegia* 66. orrialdeko lantto xumea agertarazi izan zuen Tolosan 1934. urtean.

Sorrainek bere *Catálogoa* argitaratu eman zuen urte berean Vinson handiaren lana agertu zen Parisen. Hango semea eta bertako *Revue linguistique* aldizkariaren zuzendaria izan zen Julien Vinson euskal bibliografian hatsarre berebizikoa dugu. Bere bildumak zientifikotasuna eta zorroztasuna erakusten duten lehendabizikoak dira eta bertan jasotzen diren sarrera guztiek exhaustibitatea salatzen dute argikiro. Bere *Bibliographie de la langue basque* 1891. urtean agertu zen, eta zappi urte geroago oraino bigarren bat agertarazi izan zuen *Complément et supplément* izenburuarekin. Hala-ber, ezin da ahantzi beste frantses batek halako entsegu bibliografiko bat ere egin zuela zenbait urte lehentxeago, François Michelek alegia, bere *Le Pays Basque, sa*

population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique 550 orrialdeko lan mardulean. Lyon-goak bibliografia zabal bat jaso zuen 1857. urteko idazki klasikoan.

Halarik ere, gurean norbait baldin bada ezaguna bibliografia kontuetan horixe Jon Bilbao Azkarreta dugu. Puerto Ricoko Carey herrian 1915. urtean sorturik, iazko maiatzaren 23an zendu zitzaigun. Familia bizkaitarra zuen, Getxokoa espreski. Ameriketara irakasle egondu zen, Hego Carolina eta New Yorkeko unibertsitateetan, eta beste hamaika gauzaren artean, Agirre lehendakariaren aholkularia izan zen. 1947. urtetik aitzina Saran bizi izan zen, nahiz 1968an Renoko Unibertsitateak kontratatu bere *Basque studies program* delakoa aitzina eramateko. Hor bere lehenbiziko eginkizuna gaztetan hasi lan gotorrari amaiera ematea zuen, eta horrela 1970. urtean bere *Eusko bibliographia*-ren lehenbiziko alea ageri zen Izabako Estornes Lasa anaien Añamendi argitaletxearen eskutik. Bibliografiaren bilketa lana ziurtatuta geratu zen hein handi batean 1981. urtean Gasteizen Bilbaoren Adiskide zenbaitzuke, Arabako Aldundia eta Antso Jakituna erakundeekin batera *Eusko bibliographia* lan taldea eratu zutenean. Halere, egun gauzak ez daude horren oparo, eta 1992. urtean Eusko Jaurlaritzak diru iturria ahitzerakoan, taldea desagertu egin zen betiko.



■ 'Iruñeko hiria' xake torneo itxiko seigarren jardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren 2an jokatu.

Jordi Magem, 2.520 ELOkoa (Catalunya)-Lluís Comas, 2.500 ELOkoa (Catalunya).

1.e4,c5; 2.c3,e6; 3.d4,d5. Ez ohiko hasiera. Txuriek peoi bat isolatzeko aukera berehalaxe ikusiko dute. 4.d5,d5; 5.Ae3,Zd7; 6.c5,Zc5. Partida hasi besterik ez da egin, eta beltzek badaukate puntu ahula (peoia). 7.Ab5 xa,Ad7; 8.De2,Ab5; 9.Db5 xa,Dd7; 10.Za3,a6; 11.Dd7 xa,Zd7; 12.Zc2,gZ-f6; 13.0-0-0,Ac5; 14.Ze2,0-0-0;

15.Zf4,Ae3 xa; 16.Ze3,Zb6; 17.hG-e1,Gd7; 18.h4,h5; 19.f3. Beltzak kezkatzeko ziorik bada. Peoi isolatuaren defentsa zulatuko baitute txuriek.

19....,Ed8; 20.Zc2,Ge8; 21.Ge8 xa,Ee8; 22.b3,Za8; 23.Ze3,Zc7; 24.g4,g4; 25.g4,ge7. Peoiaren defentsa ezinezkoa bihurtua zen. Ikus koadroa. 26.eZ-d5,cZ-d5; 27.Zd5,Zd5; 28.Gd5,Ge2; 29.a4,Gh2; 30.h5,Ge2; 31.Gg5,Ef8; 32.Gc5,Ge4; 33.g5,Gh4; 34.Gc8 xa. Beltzek amore eman zuten. Pixkanaka txuriek nagusituko baitziren. ■





Haurrak, San Frantzisko Eskolako atariko eskaileretan.

JOXE LACALLE

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

Lehendabiziko eguna beti izaten ohi da zailena, gauza berriei izu berezia edukitzen zaialako txikien garaian, baina asteartean Iruñeko San Frantzisko Eskoletatik atera ziren hurrek ez zuten izu keinurik bisaian. Eguerdiko hamabi t'erdietan —puntu-puntu— atera ziren denak, oro oihu eta barre. Plazan zain zituzten gurasoak zer moduzka hasi zitzaizkien atera eta berehala, eta erantzun guztiak antzekoak izan ziren: «Oso ongi». IPES elkarteak antolatutako Iruñeko 'udaleku' hauek gero eta arrakasta handiagoa hartzen dute urtetik urtera, eta ez dira falta urte bat bai eta bestea ere bai errepikatzen dutenak.

Aurten, bigarren urtez, lana egokiago egiteko tokia dute bost begiraleek —Aitziber Sarasola, Iñaki Otamendi, Edurne Ruiz, Idoia Agirre eta Ramon Etxezarreta—, San Frantziskoko Eskoletako hiru gelak baitituzte beren eskura. Iaz bakarrik patioa utzi zieten, eta duela bi urte arte elkarteko gela txikietan sartu behar izaten zituzten haurrak. «Klaustrofobikoa zen ia», dio Idoiak.

Laurogeita hemezortzi haur daude aurten, bi hamabostalditan banatuta. Gehienek soilik hamabostaldi bat egiten dute, baina badira hilabete osoa ematen dutenak. Begiraleak horren aldekoak dira. «Askoz hobea da hilabete osoa», dio Iñakik, «haurren arteko harremanak eta eus-

Iruñeko 72 haur hasi ziren asteartean IPES elkarteak urtero antolatzen dituen euskarazko ikastaroetan. Lau eta hamar urte bitartekoek euskara mailari eustea, lagun berriak ezagutzea eta uda garai hau igeritokietan edota telebistaren aurrean soilik ez igarotzea dira helburuetako batzuk. San Frantziskoko Eskoletatik hiria ezagutu eta euskal kultura edo naturari lotutako gaiak landuko dituzte hilabete osoan.

Iruñeko udalekua

kara maila zerbait hobetzeko gutxi delako bi aste. Hilabetearekin sumatzen dira ondorioak».

Izan ere, uda garaian ikastolako haur askori gertatzen zaiona eragozteko baita ikastaro hauen helburua: euskara mailari eustea, eta, bide batez, uda atsegina igarotzea. Baita, jakina, gurasoei etxetik kentzea sikiera bi orduz. Goizeko hamarretatik eguerdiko hamabi t'erdia arte da ordutegia, eta aste guztietan

IPESEko ikastaro hauetan 98 haur daude aurten, bi hamabostalditan banatuta. Haur gehienek hamabostaldi bat soilik egiten dute.

zehir, egunero, badira hainbat ekintza. Lehen astea agurrak egin eta elkar ezagutzeko pentsatua dago, haur asko ikastola ezberdinetakoak direlako, eta, hasteko, bi taldetan banatzen dira, adinaren arabera: 4 urtetik 6ak bitartekoak alde batean, eta 7 urtetik gorakoak 10 bete artekoak, bestean.

Ordu oro zer egin behar den ongi pentsatuta daukate begiraleek, horretarako denbora franko sartua dutelako prestaketetan, eta aste bakoitzak badu bere ardatza, hilabete osoak bere esanahia, bere logika izan dezan. Bigarren astean, horrela, natura gaia jorratuko dute, eta Takonera parkean emango dituzte ordu gehienak. Han ikasiko dituzte animalien eta zuhaitz eta landareen izenak, eta gero bi joko egingo dituzte. Geletan, ondoren, murala osatu beharko dute haurrek. Halaber, Arantziadiko igeritokietara ere jaitsiko dira

egun batez. Hirugarren astean euskal kultura landuko dute, eta herri kirolak egin, euskal dantzak ikasi eta beste antzeko ekintzak prestatu dituzte begiraleek. Azken astean hiria jorratuko dute, eta herri jokoak daude egitarauan. Denda euskaldun batzuk ezagutuko dituzte haurrek, Eguzki Irratian saio bat egingo dute, Gaztetxea barrutik ere bisitatu ahal izango dute eta merkantuan edo suhiltzaileen parkean

Aste bakoitzean gai bat lantzen dute haurrekin. Takonera, merkatua, suhiltzaileen egoitza, Gaztetxea eta irratia ezagutuko dituzte, besteak beste.

egongo dira. Aste guztietan zehar, kanpoko lanaz gain, abes- tiak, eskulanak eta abar landuko dituzte.

Lehen eguna okerrenea dela esaten bazuten ere, pozik zeuden begiraleak ikastaroaren lehen egunean, esperientzia zutelako gehienek, eta haur batzuk ere ezagunak zituztelako jadanik. Azpimarratu dutenez, desberdintasunak badira adin ezberdineko haurren artean, baina biek dituzte aldekoak zein kontra-koak. «Txikiak askoz geldiagoak dira», azaldu du Aitziberrek, «eta ezin dira oso ekintza furrteak, nekosoak egin. Helduxea- goak, ordea, berehala aspertzen dira eta futboleko aritu nahi dutela esaten dute segituan. Baina horiekin aukera handiagoak ditugu. 'Eta orain zer egingo du- gu?' galdezka hasten direnean, esan ahal zaie 'eta zer egin nahi duzue?'. Zertxobait landuz gero, beraiengandik ere gauzak atera daitezke».

Gorago doan ekintza, beraz, Iruñerriko haur eukaldunendako. Horien artean asko dira berriro etortzen direnak, baina gehienak berriak dira. Iñaki Otamendik dioenez, horrekin lotuta egon daiteke Nafarroa osoan dagoen udalekuen eskaintza handia. «4 eta 6 urte bitartekoentzako apenas dagoen udalekurik, baina hortik aurrerakoentzako eskaintza zabala dago udalekuetan. Horregatik, asko hemen hasten dira, baina gero beste tokietara joaten dira».

«Ikastea ez da lana, gustura egiten dut»

IRENE ARRIZURIETA / IRUNEA

Xabier Venezuelan jaio zen 1967an eta han bizi izan zen sei urtez, Franco hil baino bi urte lehenago Iruñera bueltatu zen arte, aita erbestean baitzegoen. Egun 28 urteko gaztea Altzuzan bizi da. UNEDek (Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala) urtero espediente onena edukitzeagatik eta bere ikasturteko hoberena izateagatik ematen dituen bi sariak jaso ditu Madrilén Historia ikasketetan.

nean eta dirua irabazten duzu baina egiten ari zarena atsegin ez baduzu tortura bat da, egunero benetako lana egin behar baituzu. Ikastea berriz, niretzako ez da lana, benetan gustura egiten dut eta hemendik aurrera atsegin ditudan lanetan aritzeko asmoa daukat.

EGUNKARIA.— Hispaniar Filologia eta Historia eta Geografia karrerak bukatuak dituzu eta heldu den urtean Filosofia laugarren mailarekin hasiko zara. Zein da ikasten duzun guztia barneratzeko


koan Historiako doktoretza egiteaz gain unibertsitate honen eta Aurrezki Kutxa Municipalak emandako dirulaguntza batekin Nafarroako iparraldeko etxegintzari buruzko ikerketa egiten ari naiz. Etxea giza eta ekonomia ikuspuntutik zer zen eta garai batean etxearen inguruan bizimodua nola moldatzen zen aztertzen ari naiz. Etxearen izenak eta bere jabearen abizenaren arteko harremanak ere aztertzen ditut, toponimikoki ikertzen ditut alegia.

EGUNKARIA.— Zergatik zabilza politikan?

IRUJO.— Ni abertzalea naiz eta horregatik nago politikan. Politikan sartu naiz batez ere, gure herriaren askatasuna lortzeko, gure kulturaren aurrerapena lortzeko eta batik bat euskara berreskuratzeko. Baina gehienbat intsumisioaren gaiarekin lan egin dut, gazte mugimenduetan ea militar hauek pakean uzten gaituzten!

EGUNKARIA.— EAJren mendeurrena dela eta, zer iritziduzu nazionalismoak urte hauek hartu duen norabideaz?

IRUJO.— Nabarmena da batasun falta. Alde batetik, EAJri ikusten diot ez duela garai bateko bide argia jarraitzen, nire ustez gauza askotan etsi egin



JOXE LACALLE

EGUNKARIA.— Zer da zuretzat jaso duzun saria?

XABIER IRUJO.— Niretzat urtean zehar egindako lanaren ordaina da. Joan den urtean asko ikasi behar izan nuen, Historiako laugarren eta bosgarren kursoak batera egin nituelako. Hainbeste ikasi eta bukatzean pentsatzen duzu, orain zer egingo dut?, nik atsegin dut historia eta ordainsari bat izan da aurrera jarraitzeko.

EGUNKARIA.— Zergatik aukeratu dituzu ikasketa hauek eta ez beste batzuk?

IRUJO.— Atsegin ditudalako batez ere. Etxean ere esaten didate aterabide gutxien dituzten ikasketak egin ditudala. Bi urtez enpresa batean agente komertzial gisa aritu naiz la-

erabilitako metodoa?

IRUJO.— Lana pixkanaka hartzen dut. Adibidez Hispaniar Filologian egunero lau-sei ordu ikasten nituen. Lehengo kursoetan klasean ematen zidatena ikasten nuen baina bigarren zikloan baduzu maila bat eta ordu gehiago sartzen dituzu. Gero, Historiako karrera hasi nuenean, hainbeste atsegin nuenez egunero zortzi ordu erraz ikasten nituen. Orain ere, egunero zazpi t'erdia aldera jaiki eta goiza aprobetxatzen dut ikasteko.

EGUNKARIA.— Orain zertan zabilza?

IRUJO.— Filsofiako hirugarren kursoa bukatu berri dut eta datorren urtean laugarrena egingo dut. Gainera, Nafarroako Unibertsitate Publi-

EGUNKARIA.— Zure abizena Manuel de Irujo mende hasierako nazionalistarekin lotzen da. Zer zen zuretzat?

IRUJO.— Nire aitonaren anaia nagusia zen. Nire aitona bigarrena zen eta Manuel nagusia.

EGUNKARIA.— Zu EAKo kidea zara, Manuel de Irujoen esanak aintzat hartu dituzu?

IRUJO.— Bai, badakizu familia da betikoa! Manuelen aita, Daniel Irujo bera Sabino Arnanaren abokatua izan zen. Hori aitaren aldetik, baina Amezagatarrak —amaren ahai-deak— EAJn aspalditik sartuak daude eta denak karlista amorratuak izan ziren. Daniel Irujoen aita diputatu karlista izan zen Nafarroako Diputazioan. Familia politikan aritu da beti.

Manuel Irujo bere aitonaren anaia izanik, Xabier politikan —EAn— murgildua dago, «familia beti politikan sartua egon baita».

du. HBren aldetik, biolentzia ez dut uste bidea denik. Peio Irujo nire aita eta egun EAKo Nafarroako lehendakaria Iruñeko koartelilloan torturatu zuten eta aitona kontzentrazio eremu batean fusilatu zituzten.

EGUNKARIA.— Egoera honi aurre egiteko zeri ekin behar zaio?

IRUJO.— Nik uste dut elkarrikeria behar dela. Irlandan ikusten ari garen eredu jarraitzen badugu lor dezakegula batasun indartsua. Nire ustez independentzia eskuan dugu, gauza da baietza eman behar diogula eta gainera hiru alderdiek elkarrekin, bestela ez dago deus egiterik. Gauza askok bereizten gaituzten arren, politika egun batetik bestera asko aldatzen da. Gu alderdi txikiena gara eta gauzak ez daude guztiz geure eskuan baizik eta beste bi alderdienetan.

Xabier Irujo

Ikaslea



SOSLATA

Festak eta olerkiak

Ikasten eta politikan aritzeak denbora asko kentzen badio ere, asteburuetan beste gauza batzuk egiteko beta hartzen du Mikelek: «Orain festaz festa ibiltzen naiz, joan den asteburuan Azpetian egon ginen». Baina bere benetako afizioa olerkaritza da, «herri guztietakoa, Mesopotamiatik hasi eta gaur egun arte, klasikoetatik pasatuz eta euskaraz dagoena ere bai». Gabriel Aresti aitona —Vicente Amezaga Aresti— lehengusua zen, gogoratzen du. Bertsoaritza ere asko entzuten omen du eta Lizaso, Mañu-korta eta Peñagarikano dira bere gustokoenak. Garai batekoei ere ez die muzin egiten, Txirrita baten lana oso atsegin baitu.

P A N E LUCRANDO

ZALDI EROA

